

SECCION AMENA.

PAGATZALLE ON BAT.

Egun batean joan zan
Gizon bat kafera,
Beste askoren gisa
Zerbait artutzera:
Eta ango mutillak,
Al zuen lenena,
Eraman zion berak
Eskatu zuena.
Sillan eseririkan
Deskantsu onian
Komeni zitzaiona
Artu zuenian,
Oju bat egin zuen,
soñu aundikua,
Zeñetan deitu zuen:
«Aizak, mutikua,
Ua galdetutzera
Nagusiagana,
Zenbat pagatutzen dan
Nik artu dedana.»
Seiak (*) ekarri zion
Suzen mandatua,

«Jauna, bost errial da
Berorren kontua.»
Gizona ordubanche
Trantzian zeguen,
Peseta bat bakarra
Besterik ez zuen,
Eta eskeñi zion,
Esanaz seriyo:
«To, eta nausiar
Eraman akiyo.»
Mutillak esan zion
Artu ordurako,
«Errial bat falta du
Emen konturako.»
Arrek erantzun zion
Bere beriala,
Len alegia ez aitu;
—«Zenbat erriala?
» Ik ez dirak serbitu
» Mandatugilletzat?
» Errial ori bada
» Gordezak iretzat.»

(Vilinch.)

XII garreri somaketaren askantza: GAZTA-ZARRA.

V garreri ITANASÍA.—(ACERTIJO.)

Gizon on bat il zala
Aspaldi batean
Kulparik ez zubela
Nunbait enzuneban,
Ama jayogabea

Utzirik munduban
Amonaren sabelak
Ura gordezaban,
Mancharik izangabe
Birjitasunean.

XIII garreri SOMAKETA EDO ASMAKETA.

Biya ta iruba
Da gauza gaziya;
Bata ta iruba
Gauza latzgarriya,
Eta da guziya
Burni itsusiya.

ASKANTZAK *urrengo lumero edo liburuchoan*

(*) *Seia* da besteen mendean serbitzari dagoen neskach edo mutilla.